



• DEABRUAREN ABOKATUA •

“Izenagatik ‘lehen dama’ ematen dut, baina gehiago naiz emakume orkestra”

Michelle Hoekstra | Holandar nora gabea

Rotterdam hirian jaioa. Munduko hiritarra zen, orain
Bilbon bizi da. Edozer utz daiteke haren eskuetan.

FERMIN ETXEGOIEN
Argazkia: Judit Fernandez

Zure hiriaren izena daraman taberna dago Bilboko Zazpi Kaleetan.

Egia esan etxe ondoan bizi naiz, ez dakit batzuetan zertaz kexatzen naizen.

Zure abizenak “orkestra” hitza dakar gogora. Barrokoa, akaso? (Michellen senar bilbotarrak Sevillako orkestra barrokoa zuzentzen du).

Borroka, hobe esan, sekulako amorrua ematen didalako telefonoz “zer?” erantzuten didatenean. Tira, okerrago litzateke Holandan bizitzea Etxegoien Uribetxeberria abizenekin.

...

Eta izenagatik “lehen dama” ematen dut, baina gehiago naiz “emakume orkestra”.

Hemen uste dugu Holandan dena dela aurrerakoa, baina ejertzitzaia ere (baldin badaukazue).

Dena da gezurra, gauzak badatoz eta badoaz. Holandan kontu aurrerakoiak inoiz baino atzerakoiago daude. Erabateko kalbismoaz salbatzen gara etorkinei esker. Rotterdamgo alkatea marokoarra da, baina ez aurrerakoiak garelako; zenbaki kontua besterik ez da!

Mugarik gabeko kudeatzailea zara; zinemaldiak kudeatu (Fant, Zinebi) Bilbon, ume autistak zaindu Perun, orkestra gazteak Londresen...

Mugarik gabe, baliteke; nire mugen jakitun, dudarik gabe. Aitak arrazoi zeukan; lanbide dezente ikasi ez, eta gero komeriak.

Egia da nederlandera sortzen dela alemanaren eta ingelesaren nahasketatik?

Bai galdera aspergarria. Hirurak enbor beretik datoz. Nederlandera eremu zabalagoan hitz egiten zen, harik eta 80 urteko gerraren ostean –espainolen aurka– egungo eremura murriztu zen. Zentzu horretan euskara bezalakoa da; espainolengatik ez balitz, mundu osoan hitz egingo litzateke!

Mexiko eta Turkian ere bizi izan zara. Haiekin konparatuta, zein da gure ezaugarririk jasangaitzena?

Poteoaren erritmoa. Kontzeptu gisa poteoa ondo ikusten dut, baina tokiz aldatu beharra eroso sentitzen hasten zaren momentuan... Nire onetik ateratzen naiz norbaitek –ezinbestez– esaten duenean: “Eta orain nora goaz?”.

Zure aitak Rotterdamgo portu famatuan egin zuen lan. Han ere badira gabarrak?

Ene, ez al duzu inoiz kantu hau entzun? “Rotterdamgo errekatik behera gabarra bat zetorren, rumba-la-rumba-la-rum, Feyenoord taldeko hamaika jokalarirekin, rumba-la-rumba-la-rum, Rotterdamgo rumba...”.

Zure hemengo lagunek esaten didate oso umore holandarra duzula...

Ez dakit holandarra ote den. Urte gehiago daramat nire herrialdetik kanpo, bertan bizi izan nituenak baino. Barre egiten dut, funtsean, negar ez egitearren. Ironiaz errazago eramaten ditut sartzen naizen nahaspilak, adibidez elkarriketa hau. ■